



Iturria: *Bertsolaritzaren historia II*, (Patri Urkizuren edizioa). Etor, 1991.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MardoKoplak.htm>

KOPLAK

Beñat Mardo

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

BEÑAT MARDOREN KHANTORIA

Ni deitzen nük Beñat Mardo Barkoxe Baxabilako,
Othoitzen hait eztizadala khantorerik hunt haboro,
Eztakika ni nizala bürüzagi hartako?

Kantore huntzale hizalakož düka hartzen banitate?
Aprendizik etzaik ez jinen Gaiñetarik batere,
Baxabilako laurentako nihaur enük ahalke.

Kobla horren emailia ezta laboraria,
Zunbait markis, edo kunte, edo kardinalia!
Bürdünarik dianian zintzarri egilia.

Zintzarri egile nizala ehadila ez düda,
Ar'eta ehait interrunitü izigarri ardüra,
Bürdünaren xerkhara jinik hire magasiala.

Hitzaz gütüik estonatzen, Museñako kuntia,
Zerentako hartzen dian Gaiñetarren althia:
Ar' eta nik ere eztiat hiretako antsia.

Kunte, markis, kardinale ezin izan gintake,
Hobe diagü bai egonik hartü gabe banitate,
Hi tailür hizan bezala ni zintzarri egile.



KONBERSAZIONEA AFER BATEN ETA ÑAPHUR ZAHAR BATEN ARTIAN

Idiarte ñaphurra,
Aspaldian hala da.
Partidu bat nik banikek hiretako aberatsa,
Mithikileko duk eta Petiri Santzen alhaba:
Hareki egik ezkontza.

Beñat, esker dereiat;
Doi-doia hitz eman diat.
Petiri Santzen alhabarik etxerat nahi eztiat;
Haren aitaren ezagutzera Barkoxerat jin gei diat,
Hirekin duk, jakin diat.

Idiart, hobe huke hik
Bilu lintzia utzirik,
Nik perruka emanen diat, sagarroi larruz eginik;
Buruxurien gordatzeko, harek kalitate badik,
Halako bat behar duk hik.

Beñat, esker dereiat,
Hirur kalota batiat:
Hire sagarroi larrukoaz beharrik batere eztiat.
Ihauretako begira ezak, joaiteko ohiarat,
Petirikin lotzerat.

Idiarte ñaphurrak
Eta Beñat auherrak
Hola zutien algarri egin karesa ederrak.
Gaztiak maite lan egina, Petiri Santzen lagunak:
Khuinak guziak neskatilek.

Bai, jente hunak, erri,
Koblak beitira berri.
Airia eta egitatiak zaharrak zaitzat e iduri,
Auher edo neskatilekin Petiri Santzen askazi:
Hola bethi dut ikhusi.

JAUN BARUA UHARTEN

Jaun barua Uharten, nahi denian Zalgizen,
Beñat Mardok, jauna, dereizut permesione galthatzen
Khanstore berri eli bat Idiart Zalgizeren,
Zeren din merexitzen.

Idiart, hobe huke aphez perrukak utzirik,
Nik bat eman dereiat sagarroi larruz eginik,
Neskatilen gogatzeko harek kalite badik,
Hala behar e aldiz hik.

Beñat, esker dereiat, hirur perruka batiat,
Hiaurentako begira itzak sagarroi larriak,
Eta egin kailota bat juaiteko oherat,
Eta ez neskatiletat.

Barkoxtarrak halere ihizlari zideie,
Sagarroi saldo handirik atzamaiten duzie,
Siren martxandizekilan Zaragozerat zuazte,
Han salduren tuzie.

Saratzaga gora da, han aidea fresko da,
Barkoxtarrek egin die aurten han buxeria,
Galtha Arotx gaztia, harek erho du urdia,
Aithorten badu egia.

Arotx, egun entzun diat hire berri handi bat,
Zalgizen egin dereitezala kantore berri eli bat,
Haietan akusatzen haiela erho diala urde bat,
Hala denez erradak.

Kosi Beñat, nik eztiat jagoiti erho urderik,
Xerritto bat ekharten nizun Zalgizen erosirik,
Hura hil zitadazut misikek zapartaturik.
Malur hori ukhen dit.



Arotx, hunat behadi ene abis honari,
 Xerririk erosten dianin Zalgizeko merkatutik,
 Khordatto bat eros eta esteka ezak zankotik,
 Etzaik, ez, hilen laxoki.

Arotzek du juratu bi besuak goratu
 Haren txerrituak etziala nahi hatza hartu
 Gibelego konduta zereola zerratu.
 Ordian dela lotsatu.

Idiartek hartu din sorosua bizkarrin
 Nula pika bele eli bat kontrario beitzeitin
 Lasterrari eman zin sarthu khokostegin,
 Harek abilki egin zin.

ARBOTIKO PRIMA EIJERRA

Jaon Barua aspaldin
 Xederak hedatü zütin,
 Xori eijer bat hatzaman düzü Paubeko seroren komentin;
 Orai harekin biziren düzü, aspaldian gogun betzin.

Jaon Barua, orai, zü,
 Felizitazen zütügü,
 Zeren beitzü Mus de la Plazaren prima eijerra esposatü;
 Andere hori hirus düzü: zuri ezteizugu dolü.

Xedera balitz halako,
 Merkhätietan saltzeko,
 Ziberuko aitunen semek eros litzazkie oro,
 Halako xori eijertto zunbaiten hatzamaiteko!



MONSIEUR DE BERDECO

Garruzeko jaunak, plazer baduzie
Kobla bat intzun eta joaiten ziraie.
Andere Margaritaz soin ukhazie,
Gu debeiatu gabe eroaiten duzie.

Zeliz ordenatia lurrian gerthatzen,
Egiazko plazerrak handik dira jiten,
Gure desir guziak ditugu juntatzen,
Zien projet orotan benedika zitzaien.

Andere Margarita, othoi, ohar zite,
Eztezazula ahantz sekulan Barkoxe,
Agradaturen zaizu segurki Garruze,
Eta zure ikhustia guri izanen luze.

Monsieur de Berdeco comme un bon médecin,
Pour sa jeune Dame aura beaucoup de soin,
Dans la ferme assurance de votre union,
Que le Ciel vous donne sa bénédiction.

BESTALIARRAK

Etxebarne, Etxegoihen, Elixalt eta Allande,
Barkoxera bestaliar laorak khümit dirade,
Heltzian plazer egiten eta juitin haboroze.

Bestaliarrak nahi tinak Jaon her adreza bite,
Khümitia bezain laister laorak jaoziz han dirade,
Heltzian plazer egiten eta juitin haboroze.

Lao gizun eta lao zamari, hori zortzi aho dirade;
Maiatzian sabaietan belhar güti denian,
Arrathüak paseiuko aizina franko ordian.

Aho aoher hen jitian nur da ez lotsatzen?
Eta haien phartitzian nur ez alageratzen?
Heltzian plazer egiten eta juitin haboroze.

Lao egun Barkoxen jaunak ditinak iragaiten,
Entzün gabe merexiak segür ezta phartitzen,
Haren kunpania ederrak hori du merexitzen,
Heltzian plazer egiten eta juitin haboroze.



XIPA BESTA BATEZ

Adiskide eli batek ba ziela junta,
Ixilik egiteko algarreki besta,
Alde guzietan da hedatu berria,
Goihenetxia zela haitatu etxia.

Han etzaitze faltatu aragi hun freskak,
Oilo eta pulardak, arrain eta xipak,
Ardu xuriak ere, beharzu phentsatu,
Burutik buru dila besta uhuratu.

Hamazazpi pitxer ardu zazpirentako,
Etzen sobera bena aski franko;
Gero zutuzun lanak etxerat juiteko,
Zamarik hezkatx heltu makinuentako.

Gibelaz aitzinila bat zaie igaiten,
Bestaldilat buruz phiko beste bat erorten;
Zerbait ere gisatan dira arranjatzen,
Gaiaz gai eta ez barur, etxerat phartitzen.

Phartitu ondun fite xenda zien galdu,
Etxerat jun lekhutan oihanian sarthu,
Begiek ez ikhusten, berak burhunguru,
Beharko othe zaie bidian baratu.

Bestaliarrer zaie otsua huilantu.
Gai hunaren eman ez ditu uhuratu,
Bena baatzarri horrek zamarik lotsatu,
Laurhazka zuin lehenka oro abiatu.

Ezpeitziren egarri gure makinuak,
Luak egoixten zeitzen gaizuer buriak,
Petik igan ziren pare galtzen zamariak,
Pilota bezain biribil dira urthukiak.

Lurrila erorteko iharrausaldiak,
Segurki iratzarri zutian guziak,
Gustuki atzamaiten beren buriak,
Bide handin hedailo lohin nahasiak.

Etxerat zamariak zintkaz zaitze heltzen,
Etxekuk keheilala berhala agertzen,
Nausik falta ikusiz dira desolatzen,
Eta hen xerkatzera laster abiatzen.

Nonbait argi hasteko franko freskaturik,
Etxetarat huilantzen dira nuntipaitik,
Segurki hurak ziren untsa markaturik.
Oro sakho, hur, lohi, bunetak galdurik.

Othoi, erran zahar hau untsa har ezazu,
Uhurez bizitzeko moienak batuzu,
Orotako hobena segurki hau duzu,
Ardua bethi doin erabil ezazu.



BARKOXERO GATU-JALEN KHANTORIA

Ihautiria huilantzen,
Maltesak orhitzen,
Ase baten egitera dira abiatzen,
Salazar harmaturik, ihizera joaiten,
Fortuna du egiten.

Paradis-en gathia,
Oren tristin sorthia,
Salazar harmarekin haren hatzemailia,
Laur lagunekin, gero, dobatan jalia!
Ai zer apetitia!

Gathia zen marfundi,
Zahar eta itxusi,
Hamabost urthe huntan jaten zin xixari,
Barbalot, suskandera, arrathu, behilki,
Ez zena grent-garri?

Gathia ezarri,
Arozteian segretki,
Hamabost egunez han herakitazi;
Nola beitzen zaharra, trendetzia gati,
Gozatzeko hobeki.

Gathu jalik nur dicen,
Nik ez dit erraiten.
Sants bere emaztiareki... balinbada han ez zen!
Pourtaü gatu-jale dela ez dit entzun ukhen...
Ez, ez dit sinesten!

Cette chanson imprimée
Le onze février
Six sept cent quatre vingt treize à tous j'avertirai:
Maltesak gathietarik begira-itzatzie:
Zonbait koi dirade!